

TXORI BATEK ESANDA DAKIT... GENEROA!

ZER DA TBED! ?

TBDE!

Txori Batek Esanda Dakit! ekimena Iurreta eta Markina-Xemeingo Herri Biblioteken arteko elkarlanaren emaitza da.

Bere helburu nagusia haur eta gazte literaturaren bitartez urtero gai ezberdin bat jorratzea da **areto literario** formatuan.

Maiztegi Eskolako HH5-LH6. mailararteko ikasleekin egingo ditugun bisita gidatuen bidez bideratuko dugu dinamika hau.

ZER DA?

TBED! Gai ezberdinak lantzen dituen **areto literarioa** da. 2015. urtean Markina eta Iurretako Herri Bibliotekak abiatutako ekimena GERRA gaiarekin. Urterik urte gaiak aldatuz goaz gure kolaboratzaileen eskaeren arabera. Aurtengoan **GENEROA**ren txanda da.


Aretoaren helburua haur eta gazte literaturaren bitartez gai ezberdinak lantzen joatea da, beti ere herriko eskolarekin elkarlanean. Aretoa Herriko Bibliotekak burutuko dituen bisita gidatuen bitartez dinamizatuko dugu.

DINAMIKA

Espazio hau Herriko Biblioteka eta Herriko Eskolaren artean aurrera eramateko ekintza bezala planifikatu da beraz bakoitzak betebeharrak batzuk ditu:

BIBLIOTEKA: Planifikazio eta antolaketaz arduratu da: bibliografia eta gaiaren inguruko baliabideaz aukeratzeaz, liburuak lortzeaz, geletara kutzak helerazteaz, ekintzen eta bisita gidatuen diseinuaz eta berauek dinamizazioa.

ESKOLAK: Alde batetik irakasleak gelan landu dezake gaia, berak egokien ikusten duen moduan, bestetik bibliotekatik irakurle txoko eta areto literarioa lotzen dituen saio bat eskeintzen dizuegu, eta azkenik ikasleak berak bere kabuz, edo familiarren laguntzaz gaia gehiago jorratzeko album bildumatxo bat izango duzue gelan (gaiaren inguruko liburu kutxa bat).



DATAK

Otsailak 19: LH 4

Otsailak 20: LH3


Otsailak 21: HH5

Otsailak 22: HH5

Martxoak 4: LH2

Martxoak 7: LH6

Martxoak 12: LH1



NOLA GAUZATUKO DA?

- 1| Gaiarekin zer ikusia duten **album ilustratuak** bidali ditugu gela bakoitzera ikasleek irakurri ditzaten, hileroko irakurle txokoan egiten dugun bezala. Liburu hau bibliotekako saioan abiapuntu bezala erabiliko dugu.
- 2| Gaia **gelan landu** daiteke, bakoitzak nahi duen neurrian eta moduan. Horretarako ere baliabideak eskeini dira.
- 3| **Areto Literarioa. Bibliotekan** egingo dugu saio hau, aurretiaz zehaztutako data eta orduan. Bertan ipuin kontaketa, talde dinamika eta irakurle txoko saioaren konbinazio baten bitartez gaia landuko dugu, beti bezala **irakurketa kritikoa eta diskurtsoa eraikitzen ikasteko** helburuarekin.
- 4| Gaiaren inguruko **aukeratutako bibliografia** dago eskuragarri, batez ere kalitatezko album ilustratuekin osatuta, **kutxa bana izango da gela bakoitzean.**

BALIABIDEAK

Saioaren helburua ikasle bakoitzak gaiari buruzko hausnarketa egitea da. Generoa zer den, non igarten duen, zergatik... Horretarako beharrezkoa da saioetara aldez aurretik lanketa bat eginda etortzea, hau da eskolaren esparrua da, eta horretarako erabil daitezkeen dinamikak ere anitzak, elkarrizketa, bideoren bat ikustea, irakurritako albumari buruz berba egitea, ipuin kontaketa, familian galdetzea...

Guk eskolari egokitzat jo ditugun sareko baliabide batzuk gomendatzen dizkiogu, gure ustez norberaren burua “janzteko” ondo daudenak, gelan erabiltzeko aproposak.

ARETO LITERARIOKO BISITA GIDATUAK

Iurretako Maiztegi Herri Ikastetxearekin adostutako saioak izango dira. Bisita hauetan gelan edo etxeetan irakurritakoaz gain taldean beste irakurketa eta kontaketa batzuk eginez norberares hausnarketa aberastea da.

Adintarte ezberdinetarako 3 liburu hautatu ditugu eta berauen kontaketa egingo dugu. Liburuen edizio originalak erabiliko ditugu, ingeleraz eta frantsesez izango dira. Dena den kontaketa euskaraz izango da. Kontaketa hauek girotzeko sareko baliabideekin uztartuko dugu bisita.

KONTUAK KONTATU ETA ZER GEHIAGO EGINGO DUGU?

Gelan jorratutakoak irakurritakoan + Areto Literarioan kontatutakoak komentatu ondoren... Gaian sakontzeko dinamika erraz batzuei ekingo diegu: elkarrizketa, berba jokoak, sorkuntza...

946812726 | biblioteka@iurreta.eus

